

BILBOTIK ZAMORARA

Ez dakit zer galdu jakon Iñaki Anasagasti jaunari Erroman. Edozein atxaki naikoa izaten dau, Vatikanoren aurka jarteko. Azkenengoz, urtarilaren emeretzian. Bilboko periodiku ezagun baten. Atxakia, gaurrengungo korruziñoa eta ustelkeria dala ta, Tarancón kardinalak egindako salaketa.

Madrilgo legebiltzarreko jeltzailleak, artikululuze baten, garratz diardu Vatikanoren aurka. Beste ainbat pekatuen artean, Juan Mari Uriarte Bilbotik Zamorara aldatzea, leporatzen deutso Erromari.

Ta ori ez da egia. Artikulu ori, orain iru illabete, idatzi izan baleu, parkatuko neuntson. Au da, Juan Mari Uriarte jauna Zamorako Gotzain izendatu ebanian Aita Santuak. Baiña gaur gatx egiten jat ulertzea. Ta ez kritikaren kontra nagolako. Edozer kritikau leike. Baita Eleizaren jokabideak be. Nire kezkea beste au da: Madrilen dogun parlamentaria edo Navacerradako lañupean itsututa bizi da edo gezurrez beteriko azpikeriz jokatzen ari da...

Zelakoak izan diran, Bilbotik Zamorara emondako pausoak, iñok argi eta garbi azaldu baditu, ori Juan Mari bera izan da. Bai eleizbatzarretan eta bai komunikabideetan. An eta emen egin dau berba orretaz lar klaru. Ta eskertzekoa da, gainera. Azken baten,

Juan Mari jaunak berak eskatu izan deutso Erromari, Bilbotik kanpora urteteko. Beti be, Eleizaren serbitzuan zintzo edonon jokatzeko bere zabaltasuna agertuz. Umoretsu esan euskun Euskal Telebistan: «Badau Bizkaiko Eleizak eskubidea nigandik atsedenaldea artzeko». Ta ori jakiteko ordua izan dau Anasagasti jaunak. Beste gauzetan zuurrigo ez badabil, ez dogu izango euskaldunok beste munduko suerterik Madril-go parlamentu zorionsuan...

Nire penak

Ez noa Juan Mari Uriarteren laudorioak kantetara. Baditut motiboak orretarako be. Ezta negar malkotan jartera be. Nai neukena aipatu, auxe da: Ez dodala neure bizitzan beste gotzain bat euskeraz ain ederto berba egiten eta idazten dabenik ezagutu. Ta gaiñera bizkaiera erreza eta errikoa. Bizkaiko euskaldun edozeiñek ulertzeko euskerea. Esaterako, bere despedidan, azaroaren amabostean, Begoñako basilikan iru-lau berba baiño ezebazan egin. Ze ederto laburtu ebazan iru-lau berba orreetan, bere erderazko sermoi sakona.

Sermoiaren asieran: «Etxe-etxean nago gaur zuen artean. Urko zarielako fedez, elizkortasunez eta maitasunez. Bilboko eliz garala agertzera eta ori garealako eskerrak emotera etorri gara gaur Begoñako Andra Mariaren magalpera». Jarraian, Efesotarren epistola oiñarri artuta, Jaungoikuak Eleizari emondako karismen batasuna eta ezbardintasuna azaltzen saiatuko da. Guzti ori, euskeraz olan laburtzen dau: «Batasuna ta ezbardintasuna bizi eguizuez ba ez alkarri auzika, alkarri mosuka baiño. Gotzaiña batasun onen ardatz dozuela. Gotzaiñari lagunduz eta bere laguntza onartuz. Jarraitu urdurikeri barik eta ketokeri barik bide onetan».

Sermoiaren bigarren zatian, Jaungoikuaganako eta pobrienganako griña eta joera jarten ditu kristauon elburu eta jomuga. Ta auxe berau euskeraz: «Batasunaren iturria, bizia da. Ta bizia Jesusengan dago. Jesusek Irutasunean surrut egindako bizia geureganatu eta geuretu daigun». Ta adio egikeran, ez dau agertzen

olako traumarik. Beste ainbat eta ainbat bizkaitarren antzera doa gugandik: «Erri onetako seme-alaba asko joan dira urrutira ogi billa, fedea zabaltzera, gaixoei laguntzera. Ni be ba noatsue, Jesusen atzetik, Aita Santuaren aginduz. Agur eta eskerrik asko!».

Olakoxe bizkaiera erreza eta xamurra ibilten dau Juan Mari jaunak. Ta aparteko abilezia dauko gauzak klaru-klaru azaltzeko. Orretarako berez berez datorkoz burura ejenpluak eta konparaziñoak bata bestea-baiño politagoak. Larreako Gogartetxean, ixte illero berak zuzentzen euskuzan kurtsoko erretiroak. Orain amabost-ogei urte, olako itzaldi sakonik euskera ain errezean, Gotzain baten aotik entzungo nebanik, amesetan bere ez... Aurrerantzean olako suerterik eukiko ez dodan, penetan nago...

Lekuko Eleizaren teologia eta mistika sakontzen, sarritan, alegindu jaku Juan Mari jauna. Euskalerriko Gotzaiñak pentsamentu ori bein eta bariro darabile. Batez be, Juan Mari Uriartek egindako pastoraletan. Erraz igerten da bere estilua eta eskua. Askotan, egin izan dausot neure buruari galdera au: zergaitik ez dausku Bizkaiko eleiztarroi, bizkaierez karta pastoral edo antzekua idatzi? ori be bada lekuko Eleiza egitea. Orixe da nire beste penea!

Andoni Olea